

Ipar Euskal Herria hauteskundeetan atarian

Erregio Kontseilua

Abertzaleek ordezkariarik ez Erregio Kontseiluan

Emaitza ezberdinak nabarmendu dira erregio eta kantonamendu hauteskundeetan

Hamaika zerrendaren partehartzea izan zen aipagai nagusia azken igande honen erregio hauteskundeetarako, zeren Pirinio Atlantiarretako departamenduan, Frantzia osoan bezala, alderdi handiek ahultzen bait dituzte 'zerrenda txikiak'.

MIXEL ESTEBAN / BAIONA

Ildo honetatik RPR-UDFk aulki bat galdu du, lehen zituen zortzietarik zazpi baizik ez bait ditu eskuratu. Baina azpimarragarriagoa izan zen PS, alderdi sozialistaren beherakada zazpietatik lauetara. Alderdi Komunista eta Fronte Nazionalak lehen bezala aulki bana erdietsi zuten. Heldu berriak politika munduan dira Ihizi-arrantza-natura-ohitura zerrendako bi zinegotzi, Ekologia Belaunaldiko bat eta Enplegua Lehenik eskuin zerrendarena.

Abertzaleei dagokienez, azpimarrá daitezke zinegotzirik ez dutela lortu ez Abertzaleen Batasunak, EMA eta EBko zerrendak ezta EA-Entau Paiseko zerrendak: departamenduan, % 5,88 egin behar zen zinegotzi bat ukateko. Abertzaleen Batasunak % 3,14 ditu eta EA-Entau Paisek % 1,45.

Hala ere, joan zen 1986. urteko erregio hauteskundeekin alderatuta, abertzale mugimenduaren indartzea azpimarragarria da. Orain dela sei urte, EMA aurkeztu zelarik lehen aldikoz % 1,5 eta % 2ren artean lortu zuen. Baina erran daitezke ere mugimendu abertzalearen partehartzea erregio hauteskundeetan berria izan zela, nahiz eta 70eko hamarkadaren bukaeran batez ere hauteskundeetan partehartzearen aldeko mugimendua agertu abertzale munduan.

BESTE HAUTESKUNDEEKIN ALDERATURIK

Azken udal hauteskundeetara begira, azpimarra daitezke abertzale mugimendua beheiti doala Ipar Euskal Herrian. Izan ere, udal hauteskundeetan % 10 eta % 11 inguruan erdietsi bait zuten abertzaleek. Joan zen igandean % 7,2 emaitzarekin abertzaleen alderako botoak beheiti doaz. Baina gauzak ez dira hain sinpleak, ikusita zenbat egin zuten EMA eta EBko hautagaiek kantonamendu hauteskundeetan joan zen igandean: Garazin eta Hazparne eskualdeetan, adibidez, bigarren indar politikoa da abertzaleen koalizioa.

Hemen dudarik gabe ikusten da Ipar Euskal Herriko hautesle guztiek bozkatzeko disziplinarik



Abstentzioa 31,5koa izan zen Ipar Euskal Herrian.


M.E.

✓ Departamendu mailan, % 5,88 egin behar zen ordezkari bat ukateko. Abertzaleen Batasunak % 3,14 egin ditu eta EA-Entau Paisek % 1,45.


✓ Hazparnen Kanblonek kasik 1.300 boz bildu zituen kantonamenduetako hauteskundeetan eta erregiokoetan Abertzaleen Batasunak soilik 307.

ez dutela, oro har jarrera aldatzen bait dute botere hurbiltzeko hauteskundeetan eta Euskal Herriko urrun diren Frantziako instituzio administratiboentzat. Adibidez, Hazparne herrian Daniel Kanblonek kasik 1.300 boz bildu zituen kantonamenduetako hauteskundeentzat eta erregioentzat Abertzaleen Batasuna zerrendak 307 baizik ez ditu toki berean. Pentsatzen ahal da base-


ri éremuetako fenomenoia dela eta hautagaiaren pertsonalitatearekin lotua dela, baina hirietan fenomeno berdintsua agertzen da. Ipar Euskal Herriko hiri nagusia eta nahiko erdalduna hartzen badugu, Baiona, abertzaleek 814 boz egin zituzten kantonamenduetako hauteskundeentzat eta etiketa berdinarekin, EMA eta EBko zerrendak 200 boz gutxiagorekin agertzen da.



AKITANIAKO ERREGIO KONTSEILUKO AULKIEN BANAKETA



ATLANTIAR PIRINIOETAKO ORDEZKARIAK ERREGIO KONTSEILUAN



Akitaniako Erregio Kontseilua berriro gehiengorik gabe

M.E. / BAIONA

Joan zen igandeko erregio hauteskundeek Bordeleko Kontseilua aurrekoa baino nahasiago utzi dute. Lehen bezala, gehiengorik ez dago eta lau alderdietako ordezkariak ukan ordez, zortzi alderdi edo elkarte ordezkariak dira azken igandetik.

Aurreko Kontseiluan, lau alderdien artean banatu zen plenoa: RPR-UDF koalizioa, PS, PCF eta FN. Hala ere 83 aulkientzat gehiengorik ez zen eta azken hilaite hauek arazoak agertu zituzten erabakiak bozkatzeko, batez ere RPR-UDF eta FNren arteko akordioa hautsia izan zelako.

Gaur egungo asanblada berriarekin lehengo arazoak segitu behar lukete. Gainera, alderdi handienek, RPR-UDF eta PSk aulkia galdu dituzte: 9 RPR-UDFrentzat eta 12 PSrentzat. FN

4 aulkietatik 8etara pasatu da eta sektore berri bat agertu da Kontseiluan. Ihizi-arrantza-natura-ohitura (10), Ekologia Belaunaldia (7) taldeekin eta Berdeetarik bi.

Datorren ostiralean, gehengoari buruzko arazoak ikusteko parada on bat ukan beharko genuke Akitaniako Kontseiluko lehendakariaren hauteskundearekin. Aste honen hasieran goizegi da jakiteko zein izango diren alderdien arteko hitzarmenak. Alderdi batzuek lehendakari agertzen dute, RPRk bezala. Gironde departamenduko Michel Valade zerrendaburuarekin. Bestalde, Pirinio Atlantiarretako departamenduaren Ihizi-arrantza-natura-ohitura zerrendaburu Jean Saint Jossek prentsari adierazi zuenez «chiztarien taldeak ere lehendakari agertuko duela».